



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
**ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA**

2012/13 Denboraldia

## 12. ZK DUN ZIRKULARRA

### ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

**LEHENENGOA.-** 2012/13 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berariaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

**BIGARRENA.-** Jokoaren arauak FIFAk argitaratuko ditu.

**HIRUGARRENA.-** Euskal Ligako partida guztiak ASTORE PROSALA, modeloko baloi ofizialarekin jokatu beharko dira derrigorrez.

Partida hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

**LAUGARRENA.-** Taldeek partida hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partida hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

**BOSGARRENA.-** Partidaren hasieran talde bakoitzak gutxienez hiru jokalaria eta taldeko ordezkari bat aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, **Entrenatzaile "ES"** lizentzia izan beharko dute Nivel 1 titulazioduna gutxienez, eta partida guztietan aurkeztu beharko dute.

Behar hau ez bada betetzen Epaile Bakarrak falta arinatzat hartuko du.

Klubek talde bakoitzeko aldi berean hamabost jokalaria gehienez eta zortzi gutxienez izan dezakete LL.FF.tan gazte mailako taldea ez dutenek, haien artean gutxienez hogeitabat beko (92/01/01 tik aurrera jaiotakoak) hiru jokalaria izen behar dituzte



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
**ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA**

- 2 -

**SEIGARRENA.-** Areto-futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.

**ZAZPIGARRENA.-** Partidak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

**ZORTZIGARRENA.-** Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 63. eta 51. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

**BEDERATZIGARRENA.-** parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak dira Abadiñoko Lagun, Berrio Santutxu CD, Debarrena Maqcenter, Elorrioko Buskantza, Eraso Aiara, Eskolapioak KE Hirukide, Eskoriatza KE, Kukuia Etxebarri FS, Kurutziaga, Lagun Onak CDA, Meatzari de Gallarta DF, Saltxaileak DF, Sasikoa Durango CD, UPV/EHU Alava eta Uxo CD..

**HAMARGARRENA.-** Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partiduekin. Guztira hogeita hamar jardunaldi izango dira.

**HAMAIKAGARRENA.-** Igoera eta jaitsiera arloan Areto-Futboleko Euskal Ligako 1, 2, eta 3. postuetan sailkatutako klubak Hirugarren Maila Nazionalera igoko dira.

Kategoria honetako 15. Postuan (sailkatutakoa dagokion lurralde-ligetara jaitsiko dira. Sailkapenean horien berehalako aurrekoak ere, nahiz eta 15.. postuak ez izan, dagozkien kategorietara jaitsiko dira, Areto Futboleko Hirugarren Maila Nazionalera aldi baterako gertatzen diren jaitsierei jarraiki.

Halaber, lurralde-kategorietako bakoitzeko lehenengo sailkatuak Areto-Futboleko Euskal Ligara igoko dira, eta Igoera Fasearen parte hartzaileak sailkapen ordenarekiko betegabeko postuak beteko ditzakete.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
**ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA**

- 3 -

**HAMABIGARRENA.-** .Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Euskadiko Futbol Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

2012ko irailak 7, Bilbon

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General